

Ezpalak

JON TORNER

“Tintin Hergeren munduan” erakusketa Gasteizen



VITAL KUTXA FUNDazioAREN Gasteizko aretoan *Tintin Hergeren munduan* izeneko erakusketa izango da ikusgai otsailaren 15era bitartean. Tintin komikietako pertsonaia ezagunarekin

lotutako 400 objektu inguru bildu dituzte erakusketan: sekula erakutsi gabeko komikiak, marrazkiak, erretratuak, figurak, Tintinen abenturetan azaltzen diren autoak... Araba Classic Club elkarteak utzi dizkio ibilgailu horiek Vital Kutxa Fundazioari: Citroen markako bi auto, Simca eta Ford bana eta Willys MB jeepa aurkituko ditu bisitariak. Jordi Tardá bilduma-koak dira erakusketako objektu guztiak.

Eresbilek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute

ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak euskal musika berreskuratu eta zabal-tzea helburu duen hitzarmena sinatu dute. Elkarlana Peñaflorida Kaperak interpretatutako bi diskoren ekoiz-penean gauzatu da: Missa de Nostra Dona eta Quicum-que. Bi lan horiek Juan de Anchieta eta Urban de Vargas konpositoreen omenez ekoiztu dituzte.

Jose Manuel Azkue organista oiartzuarra abenduaren 19an hil zen 81 urterekin. Ia 30 urtez Donostiako Koruko Andre Maria elizako organista titularra izan zen, eta 2007an EHU-Donostiako Orfeoia Saria jaso zuen. Haren aldeko hileta elizkizunak Hondarribiko parrokian egin zituzten.

Montxo Armendariz zinemagileak (Olleta, 1949) jasoko du Eusko Ikaskuntzaren 25. Manuel Lekuona saria, bere ibilbide oparoagatik. 1984an grabatu zuen *Tasio* izeneko bere lehen filma, eta orduz geroztik beste zortzi film luze egin ditu. *Secretos del Corazón* (1997) filmarekin lau Goya sari irabazi zituen.

Jose Migel Barandiaranek 1928an eta 1929an grabatu zituen hiru film eman dizkio Barandiaran Fundazioak Euskadiko Filmategiari: *Egunpasa Urkiolan*, *Egunpasa Urduñan* eta Atau-nen filmaturiko *Zeledon*. *Operazio magikoak eta bes-telakoak* Perunezarra baserrian. 16 milimetrotan grabatutakoak dira, eta bizpahiru minutu irauten dute. Barandiaran Fundazioak hamahiru zinta utzi dizkio jada Filmategiari.

Claude Viseux (Champagne sur Ois, 1927 - Angelu, 2008) pintore eta eskultorea pasa den azaroaren 9an hil zen. Orain, 1985. eta 2005. urteen artean egin zituen brontzeko eskulturak Donibane Lohizuneko Rotonda aretoan jarri dituzte ikusgai. Erakusketa urtarrilaren 25era arte izango da zabalik.

● **Ruper Ordorika musikariak Hernaniko Kronika egun-karian:** «Gure munduan gertatzen ari den aldaketa haundienetakoa da: CDen mundua bukatzea doa, eta inork ez daki nondik aterako den. Horrek baditu bi alde: bat, aski positiboa, jendeak musika eskura daukalako; bestea berriz, erabat aldatu dela musikaren zeregina. Orain sekulan entzungo ez ditugun musikak dauzkagu denok etxean. Kontsumitzaileak gara, eta musika kontsumo gai denez gero, aldatzen da bere balioaren puska bat».

● **Iñigo Aranbarri idazleak Berrian, Etxeaz izeneko iritzi artikuluan:** «Nik uste nuen interkulturalitateak bestearen ezagutza zuela abiapuntu, berdinen arteko begirunezko zera bat (...) Nik uste nuen Dulce Pontes Barakaldoko antzokian portugesez entzuteko eta gozatzeko aukera dugun bezalaxe, Joseba Tapia Que-becen, Fermin Muguruza Tokion edota Anari Madri-

len euskaraz aritzea zela interkulturalitatea (...) Horre-gatik, lotsa emangarria zait *Etxea* proiektua, ez diot ez zimendurik ez teilaturik ikusten, ez dut ulertzen zer egiten duen Miguel Riosek euskaraz, ezin diot horri ‘interkulturalitatea’ deitu».

● **Antton Luku antzerkigileak El Diario Vascon:** «Guk txostenak egin behar ditugu dirulaguntzak lortzeko, eta orduan integratzen dugu kanpoko hiztegia, eta sailkape-nak, hierarkiak eta horiek oro gureganatzen ditugu. Adi-bidez, profesional eta amateur sailkapena; edota dantza, antzerkia, ipuina... sailkapen horiek ez dira gureak; aldi-z, maskarak ez du bereizten dantza antzerkitik edo kan-tutik; hori dena da bat, eta dantza ikasten baduzu beste guztiak ikasten dituzu. Eta maskarada bezalako ikuski-zun batek publiko generalista bat formatzen du; aldi-z, beste ikuskizunek bereizten dituzte jendeak».